

7. Eranskinak

7. Eranskinak

1. eranskina

Kanpoko analisia: Jardunbide egokiei buruzko erreferentziak

IDENTIFIKATUTAKO JARDUNBIDE EGOKIAK	ERREFERENTZIA	HELBURUAK ESPARRU ESTRATEGIKOA
<p>Zazpi ikerketa-zentroren arteko aliantza</p> <p>Barcelona Institute of Science and Technology (BIST)</p>	<p>Diziplina anitzeko bikaintasun zientifikoaren oinarritutako lankidetzaz ingurunea: zeharkako gaiak-espezializazioa.</p> <p>Ikerketa-agenda bateratua: institutuen gaitasunak partekatzen dira.</p> <p>Lidergoa duen erakundea BIST.</p>	<p>OII-EN LIDERGOA, KOORDINAZIOA ETA INTEGRAZIOA</p> <p>OII-EN ESPEZIALIZAZIOA BIKAINASUNERA BIDEAN</p>
<p>Batzordeen eta lantaldeen arteko lankidetzaz-egitura da; nukleo gisako talde txiki baten inguruan eraiki da, eta BIST komunitate osoaren parte-hartzeaz elikatu</p> <p>Barcelona Institute of Science and Technology (BIST)</p>	<p>Zentro guztien ordezkaritza duen lantaldea.</p>	
<p>Bist Ignite programa</p> <p>Barcelona Institute of Science and Technology (BIST)</p>	<p>Hainbat zentrotako ikertzaileen arteko lankidetzaz berrietan oinarritutako proiektuen finantzaketa.</p>	
<p>Antolaketa-eredua</p> <p>Institut Català d'Oncologia (ICO)</p>	<p>Biztanleria-eta lurralde-ikuspegian oinarritutako aliantza-eredua da; sareko arreta-eredu bati jarraikiz, zerbitzuak eskuratzeko aukera-berdintasuna bermatzea du helburu, paziente guzti-guztiengana kalitate berdinarekin iristeko.</p> <p>Antolaketa-eredu hau profesionalen parte-hartzean oinarrituta dago, kudeaketan eta erabakiak hartzean aktiboki esku har dezaten, betiere, erantzukidetasuna eta autonomia ardatz hartuta.</p> <p>Batzorde konparatiboak diseinatzen du estrategia (partaidetzaz baliatuta), eta lurralde-zuzendaritzetako batzordeek gauzatzen dute estrategia hori.</p> <p>Aholku Batzorde Zientifiko.</p>	<p>OII-EN LIDERGOA, KOORDINAZIOA ETA INTEGRAZIOA</p> <p>OSAKIDETZAREN SISTEMA ASISTENTZIALEAN IKERKETA INTEGRATZEA</p>

IDENTIFIKATUTAKO JARDUNBIDE EGOKIAK	ERREFERENTZIA	HELBURUAK ESPARRU ESTRATEGIKOA
<p>Eremuen arteko koordinazioa- Parte-hartze prozesua Bellvitge-ko ikerketa Biomedikoaren Institutua (IDIBELL)</p>	<p>Parte-hartze irekia eta aurrez ezarritako koordinazio-baldintzak baliatzen dira ikerketa-programa hauetan, ikertzaileen arteko lankidetzaz bultzatzeko.</p> <p>OIIetan behin eta berriz agertzen diren arazoetako bi konpontzen laguntzen dute: batetik, arloan barruko koordinazio eskasa, eta, bestetik, klinikoaren eta oinarrikoen arteko benetako lankidetzaz txikia, kasu honetan. OIIen edo ospitaleen arteko lankidetzaz arina eta konpon dezake.</p>	<p>OII-EN LIDERGOA, KOORDINAZIOA ETA INTEGRAZIOA</p> <p>OII-EN ESPEZIALIZAZIOA BIKAINASUNERA BIDEAN</p>
<p>Egiturazko antolaketa- Aliantza Basque Research and Technology Alliance (BRTA)</p>	<p>Gobernu, kudeaketa eta aholku organoak-erantzukizunak definitzea.</p> <p>Zentroen ordezkaritza organoetan.</p>	<p>OII-EN LIDERGOA, KOORDINAZIOA ETA INTEGRAZIOA</p> <p>OII-EN ESPEZIALIZAZIOA BIKAINASUNERA BIDEAN</p>
<p>Patzuergoko ikerketa-agenda Basque Research and Technology Alliance (BRTA)</p>	<p>Talde lana, zentroen ordezkariak eta arloan arloko adituak bilduta.</p> <p>Sinergiak eta osagarritasunak aprobetxatzea. Esleitutako ikerketa-baliabideak islatzen dira, baita espezializazioaren alde egindako apustuak ere.</p>	<p>OII-EN LIDERGOA, KOORDINAZIOA ETA INTEGRAZIOA</p> <p>OII-EN ESPEZIALIZAZIOA BIKAINASUNERA BIDEAN</p>
<p>Koordinazioa: IMPaCT GENÓMICA – CIBERER egitura eta IMPaCT programa</p>	<p>Sareko lana.</p> <p>Lan-ildo komunen arabera 7 programa zientifikotan egituratutako taldeak; horrek aukera ematen du indarrak bateratzeko, baliabideak optimizatzeko eta sortutako ezagutza albait gehien aprobetxatzeko.</p> <p>Gobernantza eta egitura argia. Aginte-koadro integrala.</p> <p>Kanpoko batzorde zientifikoa.</p>	<p>OII-EN LIDERGOA, KOORDINAZIOA ETA INTEGRAZIOA</p>

IDENTIFIKATUTAKO JARDUNBIDE EGOKIAK	ERREFERENTZIA	HELBURUAK ESPARRU ESTRATEGIKOA
<p>Medikuntza eta berrikuntza-teknologiak integratzeko zentroa</p> <p>Agència de Qualitat i Avaluació Sanitàries (AQuAS)</p>	<p>Nazioarteko arlo sanitario eta sozialean inpaktua sortzea, ekimenen ezarpena sustatu eta bultzatuta.</p> <p>Sare baten bitartez ezagutzak metatzea: eragile pribatu eta publikoak.</p>	<p>EMPRESA ETA TEKNOLOGIAREN ARLOKO EAE-KO EKOSISTEMAREKIKO LANKIDETZA</p> <p>OII-EN LIDERGOA, KOORDINAZIOA ETA INTEGRAZIOA</p> <p>OSAKIDETZAREN SISTEMA ASISTENTZIALEAN IKERKETA INTEGRATZEA</p>
<p>Osasun-arloan berrikuntza ezartzeko behatokia</p> <p>Agència de Qualitat i Avaluació Sanitàries (AQuAS)</p>	<p>Kudeaketa-arloko berrikuntzan interesa duten beste erabiltzaile batzuekin esperientziak partekatzen dituzten profesionalen arteko elkarreragina erraztea.</p> <p>Sistema sanitarioko profesionalek garatutako praktiketan sartu den ezagutza oso baliagarria da, eta lehentasunezkoa da hori partekatzea.</p>	<p>OSAKIDETZAREN SISTEMA ASISTENTZIALEAN IKERKETA INTEGRATZEA</p> <p>ENPRESA ETA TEKNOLOGIAREN ARLOKO EAE-KO EKOSISTEMAREKIKO LANKIDETZA</p>
<p>Osasun-arloko ikerketa eta berrikuntzarako datuak aztertzeo programa (PADRIS)</p> <p>Agència de Qualitat i Avaluació Sanitàries (AQuAS)</p>	<p>Gaiari buruzko datu sanitarioak komunitate zientifikoaren eskura jartzen dira, osasun-arloko ikerketa, berrikuntza eta ebaluazioa sustatzeko. Horretarako, erabilera publikoko sistema sanitario integralean sortutako datu sanitarioak berrerabili eta gurutatzeko aukera ematen du, programari lotutako arau-eta lege-esparruaren, printzipio etikoen eta gardentasun-printzipioen arabera.</p>	<p>OII-EN LIDERGOA, KOORDINAZIOA ETA INTEGRAZIOA</p> <p>OSAKIDETZAREN SISTEMA ASISTENTZIALEAN IKERKETA INTEGRATZEA</p> <p>OII-EN ESPEZIALIZAZIOA BIKAINTRASUNERA BIDEAN</p>
<p>Patzuergoa EIT HEALTH programarekin - (UP-rAIHSe)</p> <p>Agència de Qualitat i Avaluació Sanitàries (AQuAS)</p>	<p>Osasun-arreta ematen duten erakundeetan berrikuntza azkarrago eta hobeto probatzeko eta ezartzeko oztopoak murriztea.</p>	<p>OSAKIDETZAREN SISTEMA ASISTENTZIALEAN IKERKETA INTEGRATZEA</p> <p>ENPRESA ETA TEKNOLOGIAREN ARLOKO EAE-KO EKOSISTEMAREKIKO LANKIDETZA</p> <p>OII-EN NAZIOARTEKOTZEA</p>

IDENTIFIKATUTAKO JARDUNBIDE EGOKIAK	ERREFERENTZIA	HELBURUAK ESPARRU ESTRATEGIKOA
<p>BERRIKUNTZAKO NODOEN SAREA Osasun Ezagutza Agentzia (ACIS)</p>	<p>Osasun Sistemako profesionalek osasun-berrikuntzako sistemari ideien ekarpena sustatzeko tresna.</p>	<p>ENPRESA ETA TEKNOLOGIAREN ARLOKO EAE-KO EKOSISTEMAREKIKO LANKIDETZA</p> <p>OSAKIDETZAREN SISTEMA ASISTENTZIALEAN IKERKETA INTEGRATZEA</p>
<p>CERCA 2021- 2023 ebaluazio-sistema Institució CERCA</p>	<p>CERCA ikerketa-zentroen aldizkako ebaluazioa, agindu dieten eginkizuna betetzen duten aztertzeke.</p> <p>Ebaluaziorako pizgarriak</p>	<p>OII-EN ESPEZIALIZAZIOA BIKAINASUNERA BIDEAN</p> <p>OII-EN LIDERGOA, KOORDINAZIOA ETA INTEGRAZIOA</p> <p>I+G ARLOAREN NAZIOARTEKOTZEA (elementu hori ebaluazio-ereduan txertatzen bada)</p>
<p>Ternure Track ikerketa-arloko ibilbidea profesionala Bellvitge-ko ikerketa Biomedikoaren Institutua (IDIBELL)</p>	<p>"Ternure track" izeneko ibilbide zientifikoen sartzea. Formula horrek sistema publikoan behin betiko kontratatu arteko ibilbidea aurreikusteko aukera ematen die dedikazio-eta bikaintasun-maila batzuk gainditzeko dituzten pertsoneri.</p>	<p>BELAUNALDI-ERRELEBOA ETA SISTEMA SANITARIOKO IKERKETA-IBILBIDEA</p> <p>OII-EN ESPEZIALIZAZIOA BIKAINASUNERA BIDEAN</p>
<p>IDIBAPS ikerketa-ibilbidea Institut d'Investigacions Biomèdiques August Pi i Sunyer (IDIBAPS)</p>	<p>Ikerketa-ibilbide erakargarri eta efizientea izateko, ezinbestekoa da posizioak ondo zehaztea, ikuspegi profesional argiak izatea, finantzaketa ona jasotzea eta garapen profesionala babesteko tresnak izatea, besteak beste.</p>	<p>BELAUNALDI-ERRELEBOA ETA SISTEMA SANITARIOKO IKERKETA-IBILBIDEA</p> <p>OII-EN ESPEZIALIZAZIOA BIKAINASUNERA BIDEAN</p>
<p>Talentua erakarri eta atxikitzeo programak Institut d'Investigacions Biomèdiques August Pi i Sunyer (IDIBAPS)</p>	<p>Tresna anitzeko programa diseinatu eta ezartzea, ikerketa kliniko translazionala sendotzeko (orduak liberatzea).</p>	<p>BELAUNALDI-ERRELEBOA ETA SISTEMA SANITARIOKO IKERKETA-IBILBIDEA</p> <p>OII-EN ESPEZIALIZAZIOA BIKAINASUNERA BIDEAN</p> <p>I+G ARLOAREN NAZIOARTEKOTZEA</p>

IDENTIFIKATUTAKO JARDUNBIDE EGOKIAK	ERREFERENTZIA	HELBURUAK ESPARRU ESTRATEGIKOA
<p>Barneko deialdiak-ikerketa-ibilbidea</p> <p>L'Institut d'Investigació Sanitària de les Illes Balears (IdISBa)</p>	<p>Asistentzia-orduak liberatzeko deialdiak.</p> <p>Proiektuak sustatzea, hainbat talderen arteko lankidetz-Proiektuak hautatzeko baldintzak (hainbat OIIen artean izan liteke).</p>	<p>OII-EN ESPEZIALIZAZIOA</p> <p>BELAUNALDI-ERRELEBOA ETA IBILBIDEA</p> <p>OII-EN LIDERGOA, KOORDINAZIOA ETA INTEGRAZIOA</p> <p>I+G ARLOAREN NAZIOARTEKOTZEA</p>
<p>Ezagutza transferitzeko ekintzak</p> <p>Institució CERCA</p>	<p>Zentroen sustapen-plataforma gisa jokutzen du.</p> <p>Zentro bakoitzeko transferentzia-arloko arduradunen lantaldea.</p> <p>Babes berezia transferentzia-proiektuei.</p>	<p>ENPRESA ETA TEKNOLOGIAREN ARLOKO EAE-KO EKOSISTEMAREKIKO LANKIDETZA</p> <p>OII-EN ESPEZIALIZAZIOA BIKAINTRASUNERA BIDEAN</p> <p>OII-EN LIDERGOA, KOORDINAZIOA ETA INTEGRAZIOA</p>
<p>EIT Health programaren funtzionamendua</p>	<p>Ikerketaren, enpresa-sektorearen eta hezkuntzaren arteko komunikazio eta ezagutzarako kanala, hainbat tresna dituen.</p> <p>Idea: ezagutzak partekatzea, berrikuntzak aurrera jarrai dezan.</p> <p>Bazkideek elkartearen estrategiaosatzen parte hartzea.</p>	<p>ENPRESA ETA TEKNOLOGIAREN ARLOKO EAE-KO EKOSISTEMAREKIKO LANKIDETZA</p> <p>OII-EN LIDERGOA, KOORDINAZIOA ETA INTEGRAZIOA</p>
<p>Azelerazio-tresnak</p> <p>EIT Health</p>	<p>Hainbat profiletako eragileei zuzendutako tresna eta programa eraginkorren sorta zabala, honako hauek errazteko:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Ezagutzak eskuratzea. • <i>Stakeholder</i>-engana iristea. • Finantzaketa eskuratzea. • Merkatura iristea. <p>Azken helburua: merkaturatzen denbora laburtzea.</p>	<p>ENPRESA ETA TEKNOLOGIAREN ARLOKO EAE-KO EKOSISTEMAREKIKO LANKIDETZA</p> <p>OII-EN LIDERGOA, KOORDINAZIOA ETA INTEGRAZIOA</p> <p>I+G ARLOAREN NAZIOARTEKOTZEA</p>

IDENTIFIKATUTAKO JARDUNBIDE EGOKIAK	ERREFERENTZIA	HELBURUAK ESPARRU ESTRATEGIKOA
<p>Nazioarteko ekitaldien programa</p> <p>Bartzelonako Unibertsitateko Neurozientzia Institutua</p>	<p>Institutua nazioartean posizionatuko duten eta ikerketa sanitarioko sareetan barneratuko duten ekitaldien programa osatzea, aukera berriak sortze aldera.</p>	<p>ENPRESA ETA TEKNOLOGIAREN ARLOKO EAE-KO EKOSISTEMAREKIKO LANKIDETZA</p> <p>OII-EN LIDERGOA, KOORDINAZIOA ETA INTEGRAZIOA</p>

2. eranskina

Laburdura eta akronimoen aurkibidea

AE: autonomia-erkidegoak.

AUO: Arabako Unibertsitate Ospitalea.

Azterlan klinikoak: azterlan klinikoak. Sendagaiekin egiten diren saiakuntza klinikoak eta produktu sanitario esperimental eta behaketazkoekin egiten den ikerketa klinikoa barne hartzen ditu, baita pazienteen jarraipen klinikoa beharrezkoa den bestelako azterlan klinikoak, eta nutrazeutikoak, elikagai funtzionalak edo prozedura diagnostikoak, terapeutikoak edo kirurgikoak ebaluatzeko azterlan esperimentalak ere.

BBIF: batez besteko inpaktu-faktorea argitalpen zientifikoetan.

BIOEF: *Berrikuntza, Ikerketa, Osasuna Eusko Fundazioa* BIOEF, Berrikuntza + Ikerketa + Osasuna Eusko Fundazioa, Eusko Jaurlaritzaren Osasun Sailak sortu zuen, EAEko sistema sanitarioan berrikuntza eta ikerketa sustatzeko.

BHC: Basque Health Cluster EAEko biozientzien eta osasunaren sektoreko elkartea da. Haren helburu nagusia da enpresa elkartuen interes komunak koordinatzea, ordezkatzeta, kudeatzea, sustatzea eta defendatzea.

Biogune IKZ: Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailak sustatutako Biozientzien Ikerketa Kooperatiborako Zentroa.

CIBER: Sareko Ikerketa Biomedikoko Zentroa, ezagutza-arloa, Carlos III.a Osasun Institutuak sustatuta.

CIHIOI: Carlos III.a Osasun Institutua. Carlos III.a Osasun Institutua (CIHIOI) Estatuko ikerketa biomedikoa finantzatzeaz eta egiteaz arduratzen den Gobernuaren Ikerketarako Erakunde Publikoa da. Zientzia, Berrikuntza eta Unibertsitate Ministerioaren mende dago, baina Osasun, Kontsumo eta Gizarte Ongizateko Ministerioari ere atxikita dago. 1986an sortu zen, Osasunari buruzko Lege Orokorrekin batera, eta, ikerketa biomedikoa sustatzeaz eta koordinatzeaz gain, zerbitzu zientifiko tekniko sanitarioak eta biomedikoak eskaintzen dizkio Osasun Sistema Nazionalari, eta osasun publikoaren, kudeaketa sanitarioaren eta zuzendaritza zientifikoaren arloko prestakuntza-programak eskaintzen ditu.

EB: Europar Batasuna.

EIT Health: EIT Health 2015ean ezarri zen Berrikuntzaren eta Teknologiaren Europako Institutuaren (EIT) «ezagutza- eta berrikuntza-komunitate» (KIC) gisa. Berrikuntzako sektore edo arlo ezberdinetako hainbat CCIk osatzen dute

EIT; gure kasuan, osasun, zahartze eta I+G+B arloetakoek. Ikerketa, garapena eta berrikuntza.

EOZ: euskal osasun-zerbitzua: Osakidetza.

EPB: erosketa publiko berritzailea (EPB) eskaeraren aldetik merkatu berritzaile berriak garatzera xedaturiko berrikuntza sustatzeko administrazioaren jarduketara bat da, kontratazio publikoa erreminta gisa erabiliz.

ESI: Erakunde Sanitario Integratua. Erakunde sanitario integratuen ereduak 2011. urtean ezarri zen EAEn. Osasun-arretaren paradigma-aldaketa batean oinarritzen da; ikuspegi integrala du oinarri, pazientearengan zentratuta dago, eta zerbitzuak ematean datza, erakunde berean bilduta ospitaleak (arreta espezializatua) eta osasun-zentroak (lehen mailako arreta). ESietan, ospitaleek eta osasun-zentroek elkarrekin lan egiten dute kudeaketa-eskema beraren baitan.

ESSP: EAEko Sistema Sanitario Publikoa.

ETE: enpresa txiki eta ertaina.

HR Excellence: *Human Resources Excellence*. Europar Batasunean giza baliabideen kudeaketari lotutako bikaintasunaren zigilua.

HTA: *Health Technology Assessment*. Osasun teknologien ebaluazioa.

IEB: Ikerketarako Etika Batzordea IFM: inpaktu-faktore metatua argitalpen zientifikoetan.

IKERBASQUE: Eusko Jaurlaritzak sustatutako Zientziarako Euskal Fundazioa, EAEko ikerketa zientifikoa garatzen laguntzeko, ikertzaile bikainak erakarriz eta talentua berreskuratuz, bai eta ikerketa dinamizatzeke ekintzen bidez ere.

IN: ikertzaile nagusia.

I+G: Ikerketa eta Garapena.

JAKIUNDE: Zientzia, Arte eta Letren Akademia. Akademiako kideek aintzatespen publikoa jaso dute zientzia puruen eta aplikatuen, arte-sorkuntzaren eta pentsamendu kritikoaren hainbat diziplinatan egindako lanagatik, eta elkarrekin lan egitearen aldeko apustua egin dute, etorkizuneko erroka berrien aurrean gizaritari bere pertzepzioa eskaintzeko. Bestek beste, Ikerketako Euskadi, Vianako Printzea eta Eusko Ikaskuntza sariak irabazi dituzte, eta Akademiako kideen helburua elkarrekin hausnartzea eta ondorioak gizararekin partekatzea da.

LH: lurralde historikoak.

LOB: lanaldi osoko baliokidetasuna.

LT: lantaldea.

OII: osasun-ikerketako institutuak; Bioaraba, BioCruces Bizkaia, Biodonostia eta Kronikgune.

OA: *Open Access* edo sarbide irekia. Ikerketa-emaitzak modu irekian jakinarazteko sarbide irekia da, eta azken erabiltzaileak ez du horietara sartzeagatik ezer ordaindu behar.

Osteba: EAEko osasun teknologiak ebaluatzeko zerbitzua. Osasun Saila. Eusko Jaurlaritzza.

OSAKIDETZA: Euskal Osasun Zerbitzua. 1984tik, Euskal Osasun Zerbitzu gisa sortu zenetik, Osakidetzaren xedea izan da pertsona guztiei sistema sanitario publiko, unibertsal eta kalitatezkoa bermatzea. Gaur egun, EAEko osasun publikoa, EAEko gizarte osoaren lorpen kolektiboa izateaz gain, erreferentziako eredu ere bada.

RIS3- Research and Innovation Strategy: espezializazio adimenduna helburu duen ikerketa eta berrikuntzarako eskualde-estrategia da, Europako Estrategiaren barnean kokatzen dena. Giza baliabideak.

RRI: RRI kontzeptuaren –ingeleseko Ikerketa eta Berrikuntza Arduratsuak siglen akronimoa– helburua da komunitate zientifikoaren eta jendartearen artean dagoen arrakala murriztea. Sei agenda barne hartzen ditu: herritarren partaidetza, genero-berdintasuna, hezkuntza zientifikoa, etika, informazio zientifikorako sarbide irekia eta gobernantza-akordioak.

S3: «Smart Spezialitation Strategy», Europako herrialdeen eta eskualdeen espezializazio adimendunerako estrategia, Europako Batzordeak erreformatutako kohesio-politikaren esparruan sortu zen. Espezializazio adimenduna esku hartzeko arlo estrategikoak identifikatzean oinarritutako ikuspegia da, eta ekonomiaren indarguneak eta potentziala aztertzea du helburu, baita enpresak deskubritzeko prozesua sustatzea ere, betiere, alderdi interesdunen parte-hartze zabala bilduta.

SERGAS: Galiziako osasun zerbitzua. Zientzia irekiaren kontzeptua ikerketa eta berrikuntzaren emaitzak jendartearen zabaltzearekin lotuta dago.

UPV/EHU: Euskal Herriko Unibertsitatea.

ZTBP 2030: 2030 aldirako Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Plana EAEk ikerketaren eta berrikuntzaren alde egiten duen apustu estrategikoa da. Planaren helburua da 2030. urtean EAE, berrikuntzaren arloan, Europako herrialderik aurreratuenetako bat izatea, bizi-maila eta enpleguaren kalitatea hobetzeko.

3. eranskina

3.1. Plan estrategien erreferentziak

- **Osasun Plana 2013-2020.** Eusko Jaurlaritzako Osasun Saila. 2013.
- **Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Plana 2020.** Lehendakaritza. Eusko Jaurlaritza. 2014.
- **Osasun-arloko Ikerketa eta Berrikuntza Estrategia 2020.** Eusko Jaurlaritzaren Osasun Saila. 2016.
- **Ikerketa eta berrikuntza sanitarioaren estrategiaren monitorizazioa (EIIS 2020).** Eusko Jaurlaritzaren Osasun Saila. 2020.
- **2021-2027 aldirako Horizon Europe programa.** Europako Batzordea (2021).
- **Espainiako 2021-2027 aldirako Zientzia eta Teknologia Estrategia.** Zientzia eta Berrikuntza Ministerioa. 2021.
- **Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Plana Euskadi 2030.** Lehendakaritza, Eusko Jaurlaritza. 2021.
- **2021-2024 aldiko Esparru estrategikoa.** Eusko Jaurlaritzako Osasun Saila, 2021.
- **Osasunaren arloko ekintza estrategikoa 2022.** Carlos III.a institutua, 2021.
- **Impact programa.** Zientzia eta Teknologiarik lotutako Doitasun-medikuntzako Azpiegitura. Carlos III.a Institutua. 2021.
- **EAEko sistema sanitarioko I+G+B jardueraren memoria, 2020.** BIOEF. Berrikuntza + Ikerketa + Osasuna Eusko Fundazioa. 2021.
- **Osasun-ikerketari buruzko txostena.** Jakiunde, 2021eko uztailaren 19a.

3.2. Jardunbide egokien azterketa erreferentziak

- Institut Català d'Oncologia (ICO).
- Bellvitge-ko ikerketa Biomedikoaren Institutua (IDIBELL).
- Barcelona Institute of Science and Technology (BIST).
- Basque Research and Technology Alliance (BRTA).
- CIBERER egitura eta IMPaCT programa.
- Medikuntza eta berrikuntza-teknologiak integratzeko zentroa.
- Agència de Qualitat i Avaluació Sanitàries (AQuAS).
- Osasun Ezagutza Agentzia (ACIS).
- Institució CERCA.
- Institut d'Investigacions Biomèdiques August Pi i Sunyer (IDIBAPS).
- L'Institut d'Investigació Sanitària de les Illes Balears (IdISBa).
- Bartzelonako Unibertsitateko Neurozientzia Institutua.